

## **URRETXU-ZUMARRAGA / Liburuak plazara, irakurle bila**

### **Urretxu eta Zumarragako udalek egitarau oparoa prestatu dute liburuaren eguna ospatzeko**

Urretxun eta Zumarragan liburutegi bikainak dituzte. Urretxukoa iaz berritu zen eta Zumarragakoak ez ditu lau urte bete oraindik. Egunero ehunka lagun joaten dira bi liburutegietara liburu bila, baina urtean behin liburuak dira kalera irtetzen direnak irakurle bila. Udalek ateratzen dituzte, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Aurten ere egitarau oparoa prestatu dute.

Hilaren 1ean ipuin kontaketa saioa izan zen eta hurrengo ekitaldiak aste honetan bertan izango dira. Bihar, 17.00etan, Urretxun, Zurrumurru antzerki taldeak Zomorroak ipuina kontatuko du. Saio hau bost eta bederatzi urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Leku muga dela eta, alde zaurretik gonbidapenak hartu behar ziren eta dagoeneko guztiak banatu dira.

Bihar beste ekitaldi bat ere izango da. Félix Maraña eta José Luis Padrón idazleek Gabriel Celaya: conciencia centenaria izenburua duen hitzaldia eta errezitaldia eskainiko dute. Saioa Zumarragako kultur etxean izango da eta 19.00etan hasiko da.

Larunbatean, berriz, liburu azoko izango da Areizaga-Kalebarren plazan. Mahai batzuk jarriko dira eta herritarrek liburuak uzteko, hartzeko eta trukatzeko aukera izango dute. Aresti eta Paideia liburu-dendek ere parte hartuko dute.

Nazioarteko Eguna ospatzeko prestatu den Liburuak plazara programatik kanpo ere izango dira literaturarekin lotutako ekitaldiak. Gaur bertan, 19.00etan, euskarazko liburu lanketa taldeak Xabier Montoiaren Gasteizko hondartzak liburuari buruz hitz egingo du. Saioa Urretxuko liburutegian izango da, 19.00etan hasiko da eta Gorka Azkarate arituko da moderatzaile lanetan.

### **Bi herriotako idazle kuttuna. Karmele Jaio**

Gainera, datorren astelehenean Andoni Salamero idazle zumarragarrik Sormenaren unibertsoan izeneko solasaldia eskainiko du. Ekitaldia Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean izango da eta 18.00etan hasiko da. José Luis Cancho idazleak ere parte hartuko du.

Salamero Zumarragako liburutegian izan zen atzo goizean eta hitzaldiari buruz hitz egin zuen egunkari honentzat. 'Gaztelerazko liburu lanketako kide batek olerki liburuei buruzko zer edo zer egitea proposatu zidan eta baiezkoa eman nion. Orain arte bi lan argitaratu ditut eta hirugarren bat prestatzen ari naiz. Olerkiak euskaraz, gazteleraz eta ingelesez izango dira'.

Noiz argitaratuko den ez daki oraindik. Aurkeztu eta berehala bi liburutegietako apaletan izango da, noski. Irene González eta Ane Arana liburuzainak arduratuko dira horretaz. Eurek pasatako datuen arabera, Zumarragako liburutegiak 3.832 bazkide ditu eta Urretxukoak, 880. Lehenengoan 2.512 helduak dira eta 1.309 haurrak. Urretxun, berriz, helduak 492 dira eta haurrak, 385.

Bi herri hauetako bizilagunek nobelak irakurtzen dituzte batik bat eta DVD maileguak ere arrakasta handia du. 'María Dueñasen El tiempo entre costuras liburua modan jarri da. Hamahiru laguneko itxaron zerrenda dugu. 2009an argitaratu zen eta ez zuen aparteko harrerarik izan, baina azkenean Larssonen liburuek baino arrakasta handiagoa izan du. Euskarazkoei dagokienez, Karmele Jaioren lanak dira gehien irakurtzen direnak', aipatu dute.

Ipuin kontaketa saioak ere urretxuarren eta zumarragarren oso gustukoak dira. '70 lagun baino gehiagok eman zuten izena apirilaren 1ean Zurrumurru taldeak eskaini zuen saiorako', amaitu dute.